

# SARRERA

Kanji bat piktograma edo ideograma bat da, hau da, jatorri batean oinarrituta dagoen irudi sinplifikatu bat. Adibidez: ☀ → ☉ → 日 eguzkia, 😊 → 人 pertsona, 力 → 力 indarra eta abar.

Kanjien hiztegi honek guztira 2.259 kanji biltzen ditu, euren 4.400 ahoskera baino gehiagorekin, azalpen txiki bat, hitzen erabilera-adibideak eta erabilera-maiztasuna. Azalpen txikietan, kanjien jatorria edo istorio txiki bat jarri dut ikasterraza izan dadin eta memoria lagungarri tresna gisa. Erabilera-maiztasuna “##zenbakia”-ren bidez dago idatzita eta gehien erabiltzen diren kanjien maiztasun-ordena adierazten du.

Esate baterako, 日 ##1 da egunkarietan gehien errepikatzen den kanjia edo 清 ##705 da gehien erabiltzen den zazpiehun eta bosgarren kanjia. Maiztasun-postua 2.500 baino atzerago denean “##0” jartzen da, maiztasun urrikoa dela eta 2.500eko zerrenda horretatik kanpo dagoela adierazteko.

Hiztegi honek 2.136 Jōyo kanji guztiak ditu. Jōyo kanjiak dira “kanji ofizialak”, hau da, Japoniar hezkuntzan derrigorrez ikasi behar direnak. Liburu honetan agertzen dira De Roo-ren 1980. urtean argitaratutako “2001 kanji” liburuan daudenak gehi 2009. urtean Japoniako hezkuntza-ministerioak proposatutako beste 196 kanji.

Horrez gain, azalpenak emateko beharrezkoak edo asko erabiltzen diren beste 120 kanji inguru sartu ditugu.

## Norentzat da liburu hau?

Kanjiak aurkitzea oso erreza denez, kanji bat ikusi eta bere esanahia jakin nahi duen edonorentzat, edo kanjiak ikasten hasi berri diren ikasleentzat: bertan aurkituko dituzue kanjiaren jatorria edo azalpen labur bat, bere esanahia eta ahoskerarekin.

Liburu honek azaltzen digu Txinako eta Japoniako pentsamoldea, euren idazkeraren bitartez. Kanjiak mende asko dela sortu ziren Txinan eta horien azterketa egin ondoren garbi ikusten da antzinako txinatar gizartearen pentsamoldea. Horrek laguntzen digu gaurko Asia Urruna hobeto ulertzen.

Kasu askotan ikusten da kanji-sortzaileen arrazonamendua, kanjien unibertsaltasuna eta garai berrietara egokitzeko ahalmena. Milaka urte dela sortutakoak gaur egun “modernoak” izaten jarraitzen du, ideogramak irudi literarioak dira, bihoz dun pertsonen eginak eta gizatasunez beteak, horien miseriak eta bertuteak erakusten dituztelarik.

Bertsolari batek hizkuntzaren, irudimenaren eta asmamenaren arteko jolasa egiten duen moduan, kanji-sortzaileek buru barruan duten pentsamoldea eta asmamena irudiekin jolastuz argitaratzen dituzte. Kanjia bere sortzaileak zer pentsatzen zuen jakiteko tresna izan daiteke. Asia Urruna gero eta hurbilago dagoenez, eta harremana handiagoa denez, komenigarria izango litzateke elkar ezagutzea, horretarako beraien hizkuntza edo pentsamoldea ikasiz.

Darwin-en eboluzioaren teorian bezala, kanjiak ere aldatuz eta egokituz joan dira historian zehar, eta noizbehinka “katebegi galduak” egon daitezke. Kanji guztiak zuzen lerrokatzea ez da erraza, eta irakurleen irudikapena ere beharrezkoa da, baina horrenbeste kanji azalpen logikarekin bat datorrenean liburuko funtsezko teoria eta azalpenak nabarmen agerikoak dira.